



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-09-22


VIII. URTEA 2080. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Naturaz gozatzeko III. Zaldi Lasterketa antolatu dute Bedaion

TOLOSA Federatu gabekoek ere parte hartu dezakete igandean jokatuko den proba berezian

IZEN EMATEA Dagoeneko 21 zaldi egongo direla esan dute antolatzaileek, apuntatzeko epea bihar amaituko da 5



Tisbat saileko koordinatzailea, Irene Larrazza, eta Santi Eraso, Udal ordezkari desberdinekin Tolosako Kultur Etxean. A. IMAZ

ZEHARKAKOTASUNA ARDATZ DUEN SAIL BERRIA AURKEZTU DUTE

TOLOSA Udalaren sail berriak, Tisbat-ek, Berdintasuna, Parte-hartzea, Kultura, Gazteria eta Jaiak sailen arteko koordinazio lanak egingo ditu, Irene Larrazaran gidaritzapean 3

Tolosa Indarberritzen ekimenaren baitan 12 lagun kontratatu dituzte

EKONOMIA Udalak Gureak Taldeko Goroldi enpresarekin sinatu du hitzarmena 4

Urte guztian zehar kultur ikastaroak egongo dira Benito Izagirre kultur etxean

IBARRA Izena emateko epea urriaren 1ean amaituko da; matrikula kanpaina bultzatzeko laguntzak iragarri dituzte 7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaiateguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Laburrak**Tolosa Kantari kantu-jira izango da larunbat honetan**

TOLOSA Larunbat honetan, hilaren 25ean, izango da Tolosa Kantarik antolatutako hilabete honetako kantu-jira. Ohi bezala, 12:00etan elkartuko dira Tontokalen, eta Arantxa Yugueros zuzendari-gidari dela, hamabi-hamabost bat euskal abesti kantatuko dituzte elkartutakoek Tolosako Alde Zaharreko kaleetatik barrena. Euskaraz kantatu nahi duen herritar oro gonbidatzen dute bertan parte hartzera. Azken kantu-jiretan gonbidatu bezala hainbat musikari izan dituzte, eta larunbat honetako saioan ere horrela izango da. Bestalde, norbaitek alde zurretik prestatu nahi izanez gero, bihar egingo dute entsegua, Musika Eskolako (Gorosabelen) lehendabiziko solairuan, 20:00etan. Larunbateko kantekin egingo dute entsegua eta animatzen denak bertaratu besterik ez du egin behar.

Bayoneta aldizkariaren seigarren alea, gaur

TOLOSA Tolosako Udal Artxiboak argitaratu ematen duen Bayoneta (Tolosako Napoleonen aurkako publikazioa) aldizkariaren seigarren alea aurkeztuko dute gaur. Ekitaldia Aranburu Udal Liburutegian izango da, 20:00etatik aurrera. Bertan, Carlos Rilovaren eskutik solasaldia izango da, eta Napoleonen mitoaren inguruan dagoen bibliografia erakutsi eta azalduko du.

Miarritzeko eraiketa salatzeako elkarretaratzea

TOLOSA 76 urteko gizonetako batek emazte ohia hil zuen herenegun Miarritzen. Arratsaldeko zazpiak eta laurden inguruan gertatu zen hilketakalean, zehazki, Frias karrikan. Ehiza eskopeta batekin tirokatu zuen emazte ohia, eta ondoren bere buruaz beste egin zuen. Tolosako Bilgune Feministak «ozen» erantzun asmo dio hilketari, eta horregatik, bihar kalera aterako dira Erasorik ez, erantzunik gabe! lelopean. 19:30ean egingo dute elkarretaratzea Triangulo plazan, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartuz erasoa salatzerako.

Larunbaterako aurreikusia zegoen White Party ekimena, bertan behera

Gizartea «Euren esku ez dauden arrazoiengatik» atzeratu egin dutela adierazi dute Illargi Delicatessenetik.

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, hilaren 25ean, White Party izeneko ekimena ospatzekoa zen zezen-plazan, baina azkenean bertan behera geratu dela adierazi dute antolatzaileek. Illargi Delicatessenetik, afari berezi batez eta ondorengo festaz zegoen osatua ekimena, eta DJak edota moda desfileak ere aurreikusten zituzten, baina azaldu dutenaren arabera, «antolatzaileen esku ez dauden arrazoiengatik», atzeratzeko «beharra» ikusi dute.

Ondorioz, Whyte Party-a 2011 urteko udaberrira atzeratuko dute; «horrela denbora gehiago izango dugu, posible bada behintzat, festa hobeto antolatzeko», adierazi dute antolatzaileek.

Bestalde, Illargi Delicatessenetik festa antolatzen lagundu duten guztiak eskerrak eman nahi dizkiete, eta baita afarirako nahiz kontsumiziorako txartelak erosi dituztenei; «Euren konfiantza eta ulemena eskertzen dugu, eta ez diegu hutsik egingo. Elkar ikusiko dugu datorren urteko udaberrian».

'Tu y yo' filma emango dute bihar Leidorren, zine forumean**ERREDAKZIOA**

Ostegunero bezala, bihar zine foru saioa izango da Leidor aretoan. Hain zuzen ere, *Tu y yo* filma izango da emango dutena, ohi bezala, jatorrizko bertsioan. Bi emandak izango ditu filmak, lehena 19:15ean, eta bigarrena 21:45ean hasiko delarik.



Ostiral gauean Zerkausia jendez lepo egon zen. REBEKA CALVO

Espero zen «harrera ona» izan du Garagardo Festak

Tolosa Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira; ostirala eta larunbata izan dira, ohi bezala, egunik indartsuenak.

ERREDAKZIOA

Hamabigarren urtez antolatu dute aurten Garagardo Festa, eta beste behin ere, «arrakastatsua» izan dela esan daiteke. Oraindik balantze ofiziala egin ez badute ere, antolatzaileak «oso gustura» daude izan duen harrerarekin.

Tolosalde IKTKo Paulino Alonsok azaldu duenez, ostirala eta larunbata izan dira jende

gehien gerturatu diren egunak. «Ostiralean oso giro polita izan zen, familiak ere bertaratu zirelarik, eta larunbatean, berriz, pantaila erraldoia jarri genuen Realaren partidatik ikusi ahal izateko, eta oso ondo egon zen; bi egun horietan ez zen geratu aulki eta mahairik libre». Bestalde, Alonsok dioenez, osteguna eta igandea lasaigoak izan ziren, «baina horrela izan ohi da beste urteetan ere».

200 lagun inguru lanean

Tolosaldea IKT, Tolosa CF Txirrindularitza taldea, Tolosa Judo Elkarte eta Igarondo Urpekoak dira antolatzen aritzen diren lau kirol taldeak, eta hain zuzen ere,

euren artean banatzen dute Azokak izan dituen irabaziak. «Guztira, taldeetako kirolarien eta euren gurasoen artean 200 lagun inguru aritzen gara Garagardo Azoka antolatzen; batzuk barraren atzean, beste batzuk sukaldean, besteak garbiketan eta beste batzuk txartelak saltzen jartzen gara», azaltzen du Alonsok. Horiez gain, beste hainbat laguntzaile eta babesle izan ditu aurten ekimenak, eta horien laguntza eskertu nahi izan dute.

Datorren urteko udaberria iristean hasiko dira berriro ere lau taldeak biltzen, eta pixkanaka forma ematen hamahirugarren garagardo azokari.

Hemengo enpresariak korearrekin harremanak sendotzen ari dira

Ekonomia Jokin Bildarratzekin batera astebetez izan dira Korean, eta hango politikariek eta enpresariekin bildu dira.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko enpresari talde bat Jokin Bildarratz alkateak lagundurik Korean izan da pasa den astean, bertakoekin erlazio komertzialak sendotzeko helburuz. Duela urte erdi koreatik ordezkartza bat etorri zen eskualdera bertako enpresariekin egotera, eta orain Tolosaldekoak dira hara joan direnak. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere parte hartu du Tolosaldea Garatzeneko antolatu eta koordinaturiko bidaian.

Ibaia Energia, Saizar, Otsabio, Art-panel, Talleres Gureak (Gureak taldea), Cadinox, Sortu eta Etortech dira Korean izan diren enpresak. Anitzak dira, sektore desberdinekoak baitira eta langile



Jokin Bildarratz Koreako presidentea agurtzen. HITZA

kopuru desberdinekoak euren artean, 20tik hasi eta 4.000ra artekoak, hain zuzen.

Kanpoko Komertzio Institutuak antolaturiko ekitaldian hartu

dute parte Seulen, eta han bertako presidentearekin ere izan dira. Aste osoan zehar, politika nahiz enpresa alorreko ordezkariak biltzeko aukera izan dute.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Onintza Lasa, Andoni Iturzaeta, Jokin Bildarratz, Santi Eraso, Irene Larraza eta Joxelu Andueza tlsbat-en aurkezpen ekitaldia. A. IMAZ



«Tlsbat ez da bihar hasiko den bide bat; dagoeneko sei hilabete daramazkigu garatzen eta lantzen»

«Kultur Etxean dauden gelak filosofia honen sintesi bat dira, gardenak eta ormarikgabeak»

JOKIN BILDARRATZ
Tolosako alkatea



«Zerbitzuak sailetan banatzeak gizartearen eta administrazioaren arteko distantzia ekarri du»

«Orain arte sail desberdinek bere aldetik funtzionatu dute; tlsbat hauen erdian kokatzen da»

SANTIERASO
Tolosa Kultura Gizartearen-egilea



«Momentu honetan koordinazioa eta zeharkako irizpideak areagotzeko esfortzu batean ari gara»

«Egitasmo bateratuak osatuko ditugu, lehenak mantentzeaz gain»

IRENE LARRAZA
Tlsbat sailaren koordinatzailea

«Lehenengo zeharkakotasun esperientzia» martxan jarri du Udalak

Tolosa » Atzo aurkeztu zuten tlsbat izena duen sail berriaren koordinatzailea Irene Larraza izango da.

ASIER IMAZ

Azken denboraldian hitzetik hortzera dabilen hitza da transbertsabilitatea edo zeharkakotasuna. Moda modako termino honen inguruan asko hitz egin denez, bere garapena maila teorikoan bakarrik gelditu dela esan daiteke.

Zeharkakotasunaren ideia hori

praktikara eraman nahi du ordea Tolosako Udalak. Horretarako, aitzindari papera hartu beharko du baina, «Euskal Autonomi Erkidegoko kudeaketa publikoan ematen den lehenengo zeharkako esperientzia» izango baita.

Honen jakitun, atzo aurkeztu zuten tlsbat.

Udalaren sail berria

Santi Erasok gidatu duen hausnarketa prozesu baten ondoren, Tolosako Kultur Etxean aurkeztu zuten tlsbat; «Udalaren ekintzako arlo ezberdinak bateratzen dituen sail berria». Bertan elkartuko dira,

Berdintasuna, Parte-hartzea, Kultura, Gazteria eta Jaiak.

Tlsbat orain arte sail eta zinegotzigo ezberdinetatik kudeatu diren zenbait lan arloen bat-egite gisa jaio da. Eta aipatu bezala, «lehenengo zeharkako esperientzia izango da».

Sail berriaren aurkezpenean ondorengo arduradunak elkartu ziren: Tolosa Kultura Gizartearen-egilea eta Donostia 2016ko kultura egitarauaren arduraduna, Santi Eraso; Jokin Bildarratz, alkatea; Onintza Lasa, Berdintasun zinegotzia; Joxelu Andueza, Gazteria zinegotzia eta Andoni Iturzae-

ta, Kultura eta festa zinegotzia. Hauekin batera, Irene Larraza zegoen, tlsbat sailaren koordinatzaile berria.

Sail desberdinetako teknikariak ere Tolosako Kultur Etxean egongo ziren atzokoan, entzule gisa egon baziren ere.

Praktikan aitzindari

Udaletik jakinarazi dutenez, koordinazio eta harreman falta konpontzeko sortu dute zeharkakotasuna ardatz duen sail berri hau: «Zeharkakotasuna kudeaketa publikoaren ardatz bilakatu da azken urteotan. Plan estrategiko ugari egin da zeharkakotasuna garatzeko asmoz, baita bere inguruan asko idatzi eta teorizatu ere, baina, orain arte, ez da praktikara eraman benetako zeharkako jardunik. Erakunde publiko zein pribatuetan, sailek bakarrik eta euren kabuz egiten dute lan, koordinazio eta harreman falta direlarik jardun mota horren ondorio nagusi».

Hori dela eta, Tolosako Udalak «pauso bat gehiago» eman nahi izan du arlo honetan, zeharkakotasuna helburu, «maila publikoan ezartzen den lehenengo esperientzia abiaraziz: tlsbat».



San Inazio bidean egurrezko babesa

IBARRA » Arane iturritik San Inazio Emeterio Arrese parkera doan bide gorrian egurrezko hesia jartzen ari dira, barandaila moduan. Lanak atzo hasi zituzten eta

errekaren aldea babestu nahi dute egurrezko hesi honenkin. Parkeko haurrek eskertuko dute, baloia galtzeko arrisku gutxiago izango baitute orain. R. CALVO

Iragarki laburrak


LANA

■ **Irakaslea.** Ingeles irakaslea behar da arratsaldeetan lan egiteko. Interesatuak deitu ondorengo telefonoz zenbakira: 943 67 24 48.
■ **Zaintzailea.** Emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurrak

zaintzeko. Autoarekin. 943 65 12 64/600 33 62 14.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. 634 45 91 10.



Atzo, lurramendiko parkean, parkeko berreskuratze lanak egiten ari ziren. Sasiak mozten besteak beste. E.MAIZ

Hamabi lagun kontratatu dituzte berdegune eta parkeak suspertzeko

Tolosa » Udalak, akordioa Gureak Taldeko Goroldi enpresarekin sinatu du. Tolosa Indarberritzen programa da.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak eta Gureak Taldeko Goroldi lorezaintza enpresak akordio bat sinatu berri dute. Tolosako zenbait berdegune eta parkeetan suspertzeko eta egokitzen lanak egiteko izan da.

Ekimen hau Tolosa Indarberritzen programaren baitan dago. Eta Eusko Jaurlaritzak pertsona langabetuen kontratazioa sustatzeko eskaintzen dituen ez-ohiko laguntzei esker diseinatu izan da.

Guztira, hamabi lagun izan dira kontratatuak. Eta honela, berde-

gune ezberdinetan proiektu ezberdinak jarri dituzte martxan.

Proiektu hauetako bat Uzturre Dorreko eremuaren suspertzea izan da eta lan horiek egiteko, sei lagun kontratatu dituzte. Tolosako Udalarekin elkarlanean, sei pertsona langabetuez osaturiko taldea osatu dute. Hauek, pasa den ostegunean hasi ziren lanean eta dagoeneko buru-belarri ari dira beren zereginetan. Lan hauek sei hilabeteko iraupena izango dutela aurreikusi dute. Dorrera doazen bideak garbitu eta inguru edertertzeko zenbait lan egiten ariko dira.

Proiektu hauei esker, Tolosako Udalak langabezian dauden pertsonen aukera berri bat eman die, baina baita gaitasun urriko pertsonen ere. Gureak Taldeko Goroldi enpresa kolektiboak, hauen inte-

grazioaren alde lan egin baitu oraingoan ere.

Elosegi eta lurramendiko parkeak txukuntzen

Elosegi Parkeko egokitzenak eta lurramendi egoitzako parkeko berreskurapena dira martxan dauden beste proiektuak. Lan hauei esker beste sei pertsona kontratatu dituzte. Eremu hauetan egin diren lanei dagokionean, Elosegi parkean bideak garbitu eta txukundu dira, belarra eta sastrakak ebaki eta bertan zeuden soberrakinak jaso dituzte.

Iurramendi egoitzako parkean, aldiz, Goroldiko langileak mendoitzeko sastraka garbitzen ari dira. Belarra eta sasiak mozten ari dira -atzo- eta ondoren, belar, adar eta sasi guztiak jasotzeko arduratuko dira.

Laburrak

Haurren ekintzetan izen ematea ostirala bitarte

ALKIZA » 2010-2011 ikasturteko haurrentzako ekintzetan parte hartu nahi duenarentzat, izen emate epea irekita dago. Hilaren 24a da izena emateko azken eguna. Informazio gehiago nahi izanez gero, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera deitu behar da: 943 69 39 30 telefonora (Itsaso).

Santiago Egoitzan bisita eta luntxa izango dute

VILLABONA » Hirugarren Adinaren XXV. Astea ospatzen ari dira eta gaurkoan, Santiago Egoitzan daudenean, familiarren bisita jasoko dute eta luntxa izango dute. Ostiralean berri, argazki proiektzioa eta mus, tute, txintxon, seiak eta eskoba txapelketen finalak jokatu dituzte. Antolatzailea, Txermin biltokia da.

Biltoki jubilatuen elkartetik Benidormera bidaia

VILLABONA » Urriaren 30etik azaroren 13ra, Benidormera bidaia antolatuko dute. Biltoki jubilatuen elkartetak antolatzen du eta izena ematea, Txermingo egoitzan egin beharko da asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.


Ostiralean Ohiko Batzarra egingo dute 21:00etatik aurrera

Leitza » Batzar aretoan izango da eta hamahiru puntuz osatutako gai ordena jorratuko dute.

ERREDAKZIOA

Ostiralean, 21:00etan Ohiko Batzarra egingo dute batzar aretoan. Bertan honako gai ordena jorratuko dute: azken batzarreko akten onespina. 2. poligonoko 240. lurzatiari dagokion hirigintza planaren aldaketa puntualaren hasiera-ko onespina. 3. poligonoko 240 eta 248. lurzatiei dagokien aldaketa katastrala eta 2. poligonoko 377. lurzatiari dagokion aldaketa katastrala onartzea.

Seigarren puntuan, 2007. urteko lote baten esleipenaren akats zuzenketa onartzea. Jarraian, Leitza Udalean, datu pertsonalen fitxategiak sortzeko ordenantza hasiera batez onartzea eta 1. poligonoko 377. lurzatiari dagokion aldaketa katastrala onartzea. Energia aurrezte plana onartzea, bi mozio, oharrak eta berriemateak eta eskari galderak izango dira.



Tuc de Ratera eta Montardo igota

VILLABONA » Aizkardi Mendi Taldeko 30 lagunek, aurreko asteburuan, eguraldia lagun, Aigüestortesko parajeez gozatzeko aukera ederra izan zuten. Larunbatean Tuc de Ratera tontorra igo zuten eta Montardo gailurra igandean. Hurrengo irteera, urriaren 3an egingo dute Lagran-Palomaes aldera. HITZA

Giduzketeak XIV. Euskal Tantu Txapelketa 2010

Euskal Kantuzaleen Elkarteak
943 593 302 / 664 546 357
post@ekantuzale.net
www.kantuzale.net

Izena emateko azken eguna

Urriak 22

informazioa eskatu, animatu eta deltu!

Euskal Kantuzaleen Elkarte

Zaldia trebatu eta naturaz gozatzeko lasterketa proposa



Irati Aldanondo albaitaria iazko lasterketan zaldi bati azterketa bat egiten. HITZA

Bedaio» III. Zaldi Lasterketa antolatu dute auzoan igande honetarako; bihar da azken eguna izena emateko eta federatu gabekoek ere parte hartu dezakete bertan.

IMANOL GARCIA

Igande honetan egingo dute Bedaio III. Zaldi Lasterketa. Antolatzaileek azaltzen dutenez, Lasterketaren asmoa partaideek Bedaio auzoa eta bere inguruko mendiak ezagutzera eta gozatzera da, zaldiak zein zaldunak horrelako probetan eskarmentua hartzen duten bitartean. Horregatik antolatzaileek aukeratu duten leloa: «Gozatu naturaz eta zaldiaz lasterketan trebatuz!».

Antolatzaileek nabarmentzen dutenez, Bedaio III. Zaldi Lasterketa berezia da, beste iraupeneko lasterketekin edo raid -ekin ezberdintasunak baititu. Irati Aldanondo larkaotarra albaitari lanetan ariko da igandean. Berak argitzen duenez, «Bedaio III. Zaldi Lasterketa alternatiboa da. Raid moduko lasterketak 40 kilometro, 80 kilometro edo gehiagokoak izaten dira, federazioak antolatzen dituenak. Bedaio III. Zaldi Lasterketa natura gozatzera da, paraje politak dituztelako, eta bide batez zaldi lasterketan munduan sartzeko aukera izatea».

Lasterketa horretan ez da kontua zein iristen den lehenengo. «Horrelako lasterketei buruz



28 partaide izan ziren iazko proban. Aurtengoan kopuru hori gainditu dezakete. HITZA

gehiago jakiteko aukera da», azaltzen du Aldanondok. «Jendea kontziente izatea ez dela bakarrik zaldi gainean jarri, mendira joan eta korri eta korri egin eta itzul-tzea. Kontua da gozatzera, jakitun izanez animalia bat duzula, zaindu behar duzuna eta ahal den egoera onenean itzuli behar duela. Eta biak batera egin daitezkeela, gozatzera zaldiaren egoera ondo mantenduz».

Azterketak zaldiei

Lasterketan albaitariak duten funtzioa zaldiei azterketa egitea da. Bedaio III. Zaldi Lasterketa antolatu dute albaitariak hiru proba egiten dizkiete animaliei. Hasieran, bi zatien artean eta probaren amaieran. Aldanondok zehazten ditu zein diren probak: «Bihotz taupadak zenbatzea, hidratazio maila, herren dagoen edo ez, hesteek ondo funtzio-

natzen duten... Azken finean lasterketa hori egiteko prest dagoela ziurtatzea».

Probaren erdian, bigarren zatia hasi baino lehen, zaldiek indarberritzeko denbora parte bat dute. «Horrek eskatzen dizuna da maila bat mantendu behar duzula mendian, ezin zarela hortik pasatu», dio albaitariak. «Beti izan behar zara animalia dagoen egoeraren jakitum».

Bedaio III. Zaldi Lasterketa antolatu dute zaldunek beraien animaliak trebatzeko. «Kontrolatzen sartzeko gutxieneko eta gehienezko denbora dago», azaltzen du Aldanondok. «Probak balio dizu jakiteko nola dagoen zaldia, gehiago entrenatu behar duzun edo ez, denbora kontrolatzeko, zaldia besteekin egoten ohi zateko...». Jendeak ere erabiltzen du lasterketa zaldi eta behor gazteak probatzeko, jakiteko nola

erantzuten duten horrelako egoeretan.

Albaitariak azterketa egiterakoan gertatu daiteke esfortzu handiren bat egin behar izatea zaldiak. «Normalean jendea ez da joaten lehiazera, bai-

zik mundu horretan sartzeko eta gozatzera joateko», dio Aldanondok.

Animalia «oso zintzoa»

Zaldia animalia «oso zintzoa» da, Aldanondok dioenez. «Natura aldetik ikusita gu harrapariak gara eta zaldiak harrapakinak. Bere sena ihes egiteko izango da beti. Halere, daukaten zintzotasun horren aldetik gauza asko onartzen dizkigute, tartean gainean jartzea». Bere espazioa eta pazientzia eskatzen duen animalia dela dio, «gauzak ulertu behar dituelako eta bere sena edozein arriskuren aurrean ihes egitea delako».

Animalia «oso sentikorrak» direla gaineratzen du albaitariak. «Beraien artean hierarkia markatzen dute eta nagusia dena erreferentia da. Horregatik konfiantzan oinarritu beharko litzateke berarekin dugun harremana, horrekin izango dugulako animalia bat guregan konfiantza duena eta memento batean ez diguna sustorik emango». Denbora pasatu ahala, zaldia eta zaldunaren arteko harremana «oso estua» egiten dela dio; «bakoitzak bestea ezagutzera irainkoko».

Aurten, bazkaria eta guzti

Probak 30 kilometro ditu eta bizati dauzka. Hasiera 09:30ak eta 10:00ak bitartean emango zaio lasterketari. Zaldi albaitariaren aurretik 08:30ean hasi daitezke pasatzen. Izen emateak 15 euro balio ditu eta parte hartu nahi dutenek www.bedaio.com webgunean, raid@bedaio.com helbidean edo 620 19 91 66 telefonoan eman dezakete izena. Dagoeneko 21 zaldik eman dute izena eta baliteke iazko 28 parte-hartzaileen kopurutik gora izatea igandean. Azken eguna izena emateko bihar bertan bertan da. Bedaio III. Zaldi Lasterketa federatu gabekoek ere har dezakete parte.

Ondoren Abaetxe jatetxe berriaren bazkaria egingo da, 20 euroren truke, eta izena aurretik eman beharra dago. Horretarako lehen aipatutako webgunea, posta elektronikoa edo telefono zenbakia erabili beharko dira. Epea ere bihar amaitzen da. Lasterketako parte-hartzaileak bazkaltzen gelditu ahal izateko, antolakuntzak itxiturak prestatuko ditu. Halere, antolakuntzatik diotenez, zaldien ardura norberarena izango da.

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULAGINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA EROSI GUREAN www.euskalherrikoPLaza.com

'Nire Autorik Gabeko Eguna' ospatuko dute gaur haurrek

Tolosa » Batxilergoko ikasleek autobus zerbitzuen berri emateko informazioa banatu zuten atzo goizean.

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astean murgilduta gauden honetan Autorik Gabeko Eguna da gaurkoa. Hori dela eta, eskualdeko eskoletako haurrek ekitaldi desberdinak burutuko dituzte, nahiz eta batzuk atzo ere hasi ziren gaurko eguna prestatzen. Izan ere, batek baino gehiagok *Hobetu zure hiriko klima, nirekin ibili* zioen papertxoak topatuko zuen autoko haizetakoaren azpian, Tolosan. Bertan Tolosaldeko garraio publikoaren inguruko informazioa agertzen da: ordutegiak, telefonoak... Paperak batxilergoko ikasleek jarri zituzten au-

toetan herriko aparkaleku garrantzitsuetan, autobusa hartzeko gonbita luzatu ahal izateko.

Samaniegon ere ekitaldi ugari Horiek horrela, Samaniego ikastetxean ere ekitaldi desberdinak izango dituzte gaur: Haur Hezkuntzan, patioko zirkuituan trafiko seinaleak lantzeko ariketa egingo dute; Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoek muralak egingo dituzte; LH 3. mailakoek zirkuitua landuko dute; eta LH bost eta seigarren mailakoek triatloia egingo dute ikastetxearen inguruan patineteetan eta bizikletetan. Izan ere, eskolako Ingurumen Batzordearen helburua «haurrek kontzientzia har dezaten» laguntzea da, eta era berean, «gurasoak ere lan horretan aritzea» eta horretarako autoa ahalik eta gutxien erabiltzeko gonbita luzatzen diete. «Gaur Autorik Gabe-

ko Nazioarteko Eguna ospatzen da eta ikastetxeko Ingurumen Batzordeak zorianak eta eskerrik beroena azaldu nahi die egunero-egunero, borondate onenarekin Lagunbusean haurrei eskolara laguntzen dieten gurasoei. Goraipatzeko da egiten duzuen lana. Bepanduz!» azaldu du ikastetxeak.

Lagunbusea proiektua urtetik urtera indartzen ari da, iazko ikasturtean 50 ikasle eta 20 gurasok hartu zuten parte bertan, eta aurten ere jarraitzeko asmoa dute askok. Eskolara oinez joatea du helburu proiektuak eta eskolara oinez doazen ikasleek geldiuneak zehaztean datza, hartara denak batera eskolara oinez joan ahal izateko.

CO2 mahaiaren bilera

Autorik Gabeko Egunean, hala ere, izango dira hitzordu garrantzitsu gehiago, izan ere Stop CO2 mahaiaren lehendabiziko bilera egingo dute gaur. Tolosako Udalak pasa den urteko osoko bilkuran adostu zuen herriaren CO2 eta gainarako berotegi-efektu gasen isurketak murrizteko mahaia osatzea.

Mahaian Tokiko Agenda 21 ekintza plana garatuko dute eta gai sektorialak jorratzean herritarren parte hartzea sustatu nahi dute. 19:30ean izango da bilera, udal-etxean.

Guraso Eskola berriro ere abiarazteko bilera

Ibarra » Hilaren 30ean 18:00etatik aurrera bilera egingo dute Benito Izagirre kultur etxean.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak zein Uzturpe Ikastolak Guraso Eskola berrantolatzeke nahia agertu dute. Horretarako bilera egingo dute datorren asteko ostegunean, hilak 30, 18:00etan Benito Izagirre kultur etxean. Bileraren helburua nagusia

«Ibarra ama eta aiten beharrak, nahiak eta bertan parte hartzeko prestotasuna ezagutzeko» da, hain zuzen. Bai Udalarentzat eta baita Ikastolarentzat ere oso garrantzitsua da Guraso Eskola berriz ere martxan jartzea eta horregatik guraso guztiak egiten diete dei bilera-azalazteko.

Joan ezin duten gurasoei Gizarte Zerbitzueta (943 67 04 15) edo Uzturpera (943 67 12 99) deitzeko eskatu diete, hartara gurasoen proposamenak jaso eta ondoren bileran hitz egindakoaren inguruan berri eman ahal izateko.

Laburrak

Lizarrako upategi batetara joateko deia

IKAZTEGIETA » Herrigintza Elkartek, urtero legez, upategi batetara joateko irteera antolatuta du. Irteera urriaren 23an izango da eta Lizarrako Castillo de Monjardin ezagunera joango dira. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu behar du eta aurrez ordaindu beharko dela argitu dute. Printzipioz elkarteko kideei zuzendutako deialdia da, eta hauek urriaren 1 arte izango dute aukera elkartean izena emateko. Lekurik geratuz gero urriaren 1etik 9ra beste guztiak ere izango dute aukera izena emateko.

Urteroko bazkaria, azaroaren 7an

IKAZTEGIETA » Herrigintza Elkartek urteroko bazkaria egingo du azaroaren 7an, hau da, Kros Herrikoia egingo duten egunean. Bazkarira-ko izena eman nahi duenak izena eta dirua (40 euro) utzi beharko du azaroaren 1 baino lehen elkarteko buzoian.

Kultur Astea prestatzeko bilera, hilaren 30ean

BERASTEGI » Kultura Batzordeak Kultur Astea prestatzeko bilera deialdia luzatu die herritar guztiak. Bilerak hilaren 30ean izango da 09:00etan udaletxean. «Denon ideiak eta burutazioak kontutan hartu nahi ditugu ahalik eta herritar gehienek gustuko ekintzak antolatu ahal izateko», argitu dute.

Didgeridoo ikastaroa larunbat honetan

ADUNA » Asvinenea Eskolak larunbatean, hilak 25, didgeridoo ikastaroa eskainiko du. Iban Nikolai musika irakasleak eskainiko du 10:00etatik 14:00etara eta kostua 40 eurokoa da. Izena emateko edo informazio gehiagorako 647 20 14 01 (Bea) telefono zenbakira deitu ahal da. Didgeridooa airezko musika instrumentua da. Bestalde, haur, gazte eta nerabeentzat antzerki eta afrikar dantzen ikastaroa ere antolatzen ari dira eta laster emango diete hasiera.



Lagunbusea proiektua idartzen ari da pixkanaka. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Antzerkiak zabaldu du Kultur Astea

BIDEGOIAN » Ttinbili-Ttanba- la taldekoek *Hiru, bi, zast, egizu jolas!* haurrentzako antzerkia eskaini zuten atzo pilotalekuaren ondoko plazan. Bertan, jolasa ardatz hartuta, horretara animatu nahi izan zituzten Bidegoiango haurrak. Bertsoa, txotxongiloak eta antzerkia uztartuz, haurren arreta bereganatzea lortu zuten. E. EZEIZA

Denontzako adina kultur ikastaro



Ikasturte amaieran ikusgai jartzen dituzte ikasleek egindako lanak. I. TERRADILLOS

Ibarra » Hasi berri den ikasturterako jarduera ugari antolatu dituzte Kultur Etxean; izena emateko epea zabalik da.

ERREDAKZIOA

Benito Izagirre Kultur Etxean jarri dira jada hasi berri den ikasturteari begira, eta datozen hilabeteetarako hainbat ikastaro eta jarduera antolatu dituzte, ibartarrak asperitu ez daitezten. Urtero-urtero errepikatzen diren jarduerak dira ia denak eta duten arrakastagatik berriro antolatu dituzte.

Ikastaro guztiak bat izan ezik urte osokoak izango dira. Izena emateko epea zabalik dago, eta urriaren 1a arte luzatuko da. Matrikula egiteko, interesatuak Kultur Etxera jo behar dute, horretarako ordutegia, ondoregoa da: goizetan, 10:30etik 13:30era, eta arratsaldetan, 15:30etik 21:00etara. Bestalde, prezioari dagokionean, Gazte Txartelak dutenak %10eko deskontua jasoko dute eta familia ugariak %50ekoa. Informazio gehiago nahi duenak 943 67 03 99 telefono zenbakira deitu dezake.

» IKASTAROKAK

Urte guztikoak

■ **Aretoko dantzak.** Saioak ostegunetan dira, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

■ **Sevillanak.** Ostegunetan izango dira saioak, 20:00etatik 22:00etara.

■ **Egur taila.** Astearte eta ostegunetan dira saioak. 17:00etatik 19:00etara eta, 19:00etatik 21:00etara.

■ **Ehoziariak.** Asteartetan dira saioak. 15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era.

■ **Errestaurazioa.** Astelehen eta asteazkenetan dira saioak, 19:00etatik 21:00etara.

■ **Masaia.** Asteartetan dira saioak 18:30etik 20:30era.

■ **Pintura.** Astearte eta ostegunetan dira saioak 15:30etik 17:30era eta 17:30etik 19:30era.

■ **Eskulanak.** Astelehen eta asteazkenetan dira saioak 17:30etik 19:30era.

Lau hilabeteak

■ **Makillajea.** Ostegunetan dira saioak, 15:30etik 17:30era.

Katekesian izena emateko epeak zabalik

Erligioa » Santa Maria parrokian gaur egin beharko dute lehen mailakoek; gainontzekoen txanda beranduago da.

ERREDAKZIOA

Hemendik gutxira hasiko dituzte haurrek Ibarra eta Tolosako Pastoral Barrutiko parrokietan eta kultur zentroetan katekesiko saioak. Hori dela eta, batzuetan jada ireki dituzte izena emateko epeak, eta beste batzuetan hemendik gutxira egingo dute.

Tolosako Santa Maria parrokia-koak izango dira lehendabizikoak. Hala, 1. mailakoek gaur egin beharko dute izen-ematea 18:00etatik 19:00etara bitartean, bertako areto nagusian. Bigarren mailakoek berri, hilaren 29an joan beharko dute parrokia, baina ere 18:00etan. Azkenik, 3, 4, 5 eta 6.ekoentzat aukeratutako eguna, urriaren 5a izan da, eta ordua,

18:00ak. Tolosako Corpus Christi parrokian berriz, lehendabiziko mailakoek hil guztian zehar dute izena emateko aukera. Horretarako, 17:00etatik 19:00etara bitartean joan beharko dira bertara. 2. mailakoek hilaren 30ean dute izena emateko txanda, 17:30ean; 3. mailakoek hilaren 28an, 17:30ean eta 4.ekoek, hilaren 29an, 17:30ean.

Ibarrako San Bartolome parrokian, lehendabiziko mailakoek gaur, bihar eta etzi, 17:00etatik 18:00etara bitartean eman dezakete izena. Horretarako, eraikiarren ondoko lokalera joan beharko dute. 2, 3 eta 4. mailakoek berri urriko lehen astera arte itxaron beharko dute. 17:30ean zabalduko dituzte ateak.

Tolosako San Frantzisko elizan, maila guztietako ikasleek, hilaren 27an eta urriaren 2an dute katekesian izena emateko aukera. Bestalde, Iurreko Andre Maria kultura zentrorako joan behar dutenek urriaren 8an ekingo diete saioei.

Gipuzkoakoan ia partida guztiak irabazi dituzte Zazpi Iturriko pilotariek

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako txapelketaren baitan, hainbat partida jokatu dituzte pasaden asteburuan. Amezketako Zazpi Iturri pilota eskolako pilotariek. Hala, eskuz binaka, kadeteen mailan, Aurrera Saiazekoan aurka, Zazpi Iturrikoek, Altuna eta Irribarriak, 11-22 irabazi zuten. Eskuz binaka baita, baina gazteen mailan, Antiguokoak 18an utzi zituzten Zazpi Iturriko Gallurralde eta Leundak. Azkenik, baita ere binaka, baina nagusien mailan, Zazpi Iturriko Ropon eta Leundak 22-6 irabazi zieten Azkoitiakoek.

Banaka ere lehiatu ziren eskualdeko gazteak. Hala, gazteen mailan Zazpi Iturriko Jakak aise irabazi zion Aurrera Saiazeko pilotariari, zazpian utziz. Azkenik, eskuz banaka, nagusien mailan, Zazpi Iturriko Olaetxeak 17-22 galdu zuten Eskoriatzako aurkariaren kontra.

Irudikatu mundua **BERRIA**rekin



Egin harpidedun eta jaso **ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.



Ezaugarriak: **samsung LE 32C450**

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIAren harpidedunen artean, Elektraren eskutik.



www.elektragaliak.com

Ezaugarriak: Kamera digitala, 9 megapixelekoa • TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa • Irudiaren bereizmen ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz • Zoom digitala, x8 argazkiak handitzea • Mugimenduko JPEG bideo formatua • Mikrofonoa • SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DVB+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du. HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info **Aukerazazu, bizieuskaraz. berria**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



BELGIKA

Txema Zabala: «Belgikako hiriburuan, Bruselan, bi gauza oso famatu daude: txokolatea eta Manneken pis irudia. Hango txokolategi batean atera genuen argazki hau». TXEMA ZABALA



HERBEHEREAK

Leire Zabala: «Uda honetan Herbehereetan ibili gara. Bertan, La Hayako lorategi bat bisitatu, eta argazki hau atera genuen. Nahiz eta udaberria ez izan, lorez beteta zegoen». LEIRE ZABALA



EKUADOR

Izaskun Ezeiza: «Galapagoetako Santa Cruz irlando Ayora portuan ateratakoa». IZASKUNEZEIZA



EKUADOR

Hector Luna: «Ekuadorko Galapago irletako izen bereko dortoka erraldoia». HECTOR LUNA

A Agenda

Azoka

■ **Aduna.** Iban Nikolaik Australiako aborigenen didjeridoo ikastaroa emango du larunbatean Asvinenean 10:00etatik 14:00etara (40 euro). Informazioa eta izen-ematea, www.asvinenea.com, asvineneacursos2010@gmail.com edo 647 201401 telefono zenbakian.
■ **Albiztur.** Udalak herriko haur eta gazteentzako pilota eta dantza ikastaroak antolatuta ditu, urriari hasi eta ekaina arte. Pilota ostegu-

netan 17:30etik 18:30era (15 euro). Dantza asteazkenetan 18:00etatik 19:00etara (30 euro). Izen-ematea, udaletxean.
■ **Irura.** Loatzo Musika Eskolak matrikulazio epea irekita du oraindik. Bertan, adin guztietako haur eta gazteek solfeo zein musika instrumentuak jotzen ikas dezakete. Informazioa eta izen-ematea 943 69 26 19 zenbakira deituta.
■ **Villabona.** Santiago Egoitzan daudenei bisita eta luntxa, Hiruga-

rren Adinaren XXV. Astearen barruan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, 1. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Ibai Romo (Tolosa). 3 musutxo potolo zure lehengusu marimatraka eta familia osoaren partetik. Ondo pasa!

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

1. Saria

Eako Argazki Lehiaketa

2. Saria

Getariako Argazki Lehiaketa

3. Saria

Gorrotzeko Argazki Lehiaketa

Parte-hartzaile guztiak HITZako materialerik jasoko dute.